



PROIEKTUAREN TXOSTENA

KIMUTX BASOAN BIZI DEN IRATXOA DA, ETA AUZOLANAREN HAZIA EREIN DU PROIEKTU HONETAN PARTE HARTU DUGUNON ARTEAN. HAZI HORREK ZUHAITZ SENDOA SORTU DU ETA KANTA ETA IPUIN BILDUMA BAT BAINA ASKOZ GEHIAGO EKARRI DIGU.



Proiektu hau Creative Commons, cc-by-sa 3.0 lizentziapean argitaratuta dago. Proiektu honen edukiak kopiatu, banatu, lan eratorriak sortu eta jendaurrean hedatu ditzakezu, beti ere egiletza aitortzen baduzu.
<http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu>



PROIEKTUAK SORTUTAKOAK

Kimutx proiektuan material desberdina sortu dugu... ipuin eta kantez gain, jolasteko, kantuz aritzeko, ipuin berriak sortzeko, margotzeko, laztantzeko, euskal mitologiaren munduan murgiltzeko material andana jarri dugu guztion eskura.

JOLASERAKO, IRUDIMENA LANTZEKO, KANTATZEKO ETA DANTZATZEKO MATERIALA

- 11 kanta, 7 ipuin eta bestelako materiala biltzen dituen bilduma sortu dugu.
- Proiektuko kanta guztien doinu musikatuari zuen ahotsa jartzeko aukera ere sortu dugu bakoitzak kantei bere ukitua gehitu ahal izateko.
- Abestien partiturak doinu, akorde eta kanten letrarekin norberak bere tresnekin erabili ahal izateko.
- Pertsonaiekin istorio berriak asmatzeko irudi mozgarriak sortu ditugu.
- Norberak margotzeko irudiak ere topa ditzakezu.
- Material guztia musutruk eskuratzeko www.kimutx.eu web orrialdea sortu dugu.

NORI ZUZENDUTA DAGO KIMUTX?

HAURRAK EGUNEROKOAN ALAI ETA POZIK

Asmo nagusia, zero-sei urte bitarteko haurrek, eguneroko ekintza zehatz batzuk modu alaietan, jostagarrian eta maitakorrean batean gauzatzen laguntzea da, burututako jarduerak Euskal Herriko kulturaren testuinguruan kokatuz.

Horretarako, kantuan oinarrituko gara, batez ere, honek duen balioa eta ematen dituen onurengatik. Hala ere, helburua lortzeko hiru baliabide erabiliko dira; musika, doinu eta erritmo egokietan; hizkuntza, bai bertsoetan, bai ipuinetan islaturik; eta irudiak.

Haurrak munduari zabalik dauden pertsonak dira, eta beraien baitan daude gaitasun eta erantzun guztiak. Maitasunez beraien jardun askean oinarrituz esperientziak eskaintzen dizkion giro eta inguruneak sortuz, umearen erritmoa errespetatuz eta haurraren behar eta interesetatik abiatuta, ingurua ezagutzen lagunduko dion giroa sortzea da lan honen oinarritzko helburuetako bat.

GURASO, HAURTZAINDEGIETAKO HEZITZAILA ETA OROKORREAN HAURRAREN INGURUKOENTZAT LAGUNGARRIA DEN TRESNA

Orokorrean haurraren inguruan bizi diren helduentzat lagungarri den materiala sortu dugu.

Alaitasunean zein tentsio-uneetan bide-lagun izateko borondatearekin sortu da proiektu hau, beti ere gure kulturaren eta haurraren begirunezko ikuspuntutik abiatuta.

MUSIKA ESKOLETAN, IPUIN KONTALARIENTZAKO, BERTSO ESKOLETARAKO ETA IRAKASLEENTZAT PRESTATURIKO MATERIALA ERÉ BADA

Proiektu hau etxekekin edota lagunekin erabiltzeko baliagarria bada ere beste giroetan ere proposa dela uste dugu. Material jostagarri zein didaktiko zabala sortu da, eremu askotan erabili daitekeena.

- Eskoletako irakasleek edo ipuin kontalariek erabili dezakete haurrei euskal mitologiaren inguruko lehen hurbilpena emateko ipuinak kontatuz eta kantatuz.
- Irudi mozgarriekin txontxongiloak sortu daitezke eta haur zein heldu beraien sortutako istorioak antzeztu ditzakete.
- Ipuinetako pertsonaiak eta zenbait eszena nahi den moduan koloreztatze aukera dago.
- Musika eskoletan eta eskoletan kantua eta gorputz adierazpena lantzeko aukera ematen du bai audio CDan agertzen diren kantei esker, bai eta material didaktikoa biltzen duen CDan jasotako dauden kanten melodia musikatuengatik.
- Musika ikasteko eta praktikatzeko partiturak ere biltzen ditu.

KANTUAK, IPUINAK ETA IRUDIAK

Gai bakoitza abesti batekin landuko da, eta hura ipuin batean txertatuko da. Ipuinek, euskal mitologiaren munduan murgilduko gaituzte. Bertan, pertsonaia mitologikoak haurrak dira, eta haien bitartez beraien mundua ezagutuko dugu ume diren izaki horien begi eta ahotsetan.

Doinuen eta kantuen bitartez landuko diren gaiak hauek dira: esnatzeko orduan goxo, jolasten arropa jantzi, eskolara/haurtzaindegira joan, jateko unea, jostailuak jasotzeko garaia, etxera bueltatzeko bidea, bainutxoan jolasean, ohera joateko deia, loaren aurreko beroa, laguntasunaren balioa landu.

TAUPADA

Hemen dagoen lan guztia herriari itzuli nahi diogu, elkarlanean eta norberak bere aberastasuna emanaz herrian sortu baita.

Etxe giroan hasitako proiektua da, auzolanean hazi eta herri giroan osatu dena. Parte hartu dugun bakoitzak dakiguna eginez osotasuna elikatu dugu etengabeko ikaskuntza prozesuan zeinean haurrak izan diren ikasteko, jolasteko eta gidatzeko giltza.

Proiektu xume honetan parte hartu dugunon helburu pertsonala, bizi garen herria begirunez harturik, eta ondare kulturalaren taupadetan oinarrituz, haurren lehen urratsetako batzuen koloreztatze prozesu horretan bidelagun izatea da. Asmoa ez da haurra kulturari txertatzea, baizik eta kultura senti dezan, gure gertutasuna senti dezala, inguruan duena maitatuz bestelako kulturak balioesteko aukera aberatsagoa sortuz.

Eta orain gure ekarpen guztiak modu aske batean zuekin partekatu nahi ditugu, amatxi, aitite, guraso, osaba-izebek egiten zuten eta egiten duten moduan, ahozotasuna eta gertutasuna mimituz.

ETA HEMENDIK AURRERA ZER...?

Kimutx eta bere lagunek basoan jolasten jarraituko dute, edo akaso kultura berriak ezagutuko dituzte beste herrialdeetara salto eginez euskal kulturaren zabalkuntzan, edo beste tokietan haziak jarri eta hala munduko txoko desberdinetako sehaska kulturak gurera ekartzeko aukera sortu dezakete, edota gabonak naturarekin bat eginik pasatuko dituzte. Hori eta gehiago dago proiektu honen bihotzean.



PROIEKTUA ZABALTZEKO TRESNAK

Lau bide nagusi prestatu ditugu proiektuaren zabalkuntzarako.

1. Web orrialdea (www.kimutx.eu)
2. Kanta, ipuin eta bestelako material bildumaren 500 aleko tirada.
3. Gurekin batera auzolanean aritzea.
4. Laguntza espezifikoko emanaz.

WEB ORRIALDEA

Kimutx basoan bizi den arren, badu bere txoko birtuala ere, www.kimutx.eu helbidean topa dezakezue. Bertan, pertsonaiak ezagutzearekin batera beraiekin kantatu eta jolastu ahal izango dugu. Proiektuan sortu diren kanta, doinu, ipuin, irudi eta material jostagarri zein didaktiko guztia eskuratzeko aukera izango duzue bertan.

MATERIAL EDITATUA

500 aleko lehen tirada txiki bat egin dugu, material guztia biltzen du eta 18€etan dago salgai. Hau jasotzeko bi bide daude.

- Web-aren bitartez
- Proiektuko aurkezpenetan edo toki berezietan eskuratzeko aukera. Informazioa hori Web-ean argitaratuko da.

Material editatuarekin lortutako etekinak (halakorik balego) edizio lana ordaintzeko eta proiektuarekin aurrera jarraitzeko erabiliko dira.

AUZOLANAREN BIDEA

Proiektua bere osotasunean zein material editatua zabaltzeko sarea poliki ari gara osatzen. Edukiak interesatzen bazaizkizu, zabaltzeko zein elikatzeko eta zure ekarpena eman nahi baduzu gurekin kontaktatu kimutx@kimutx.eu posta elektronikora mezua bidaliz edo web-ean agertzen den kontaktuen atalera jo.

LAGUNTZA ZEHATZAK

Proiektuan parte-hartzen dugun guztiok musu-truk egin dugu lan proiektuaren filosofiaren ildotik. Halere lanketa guzti honek zenbait gastu suposatzen ditu, hala nola, mugikortasuna, material bereziaren beharra, edizio fisikoaren gastuak, ea.

Gastu horiek kitatzeko bi bide sortu ditugu. Lehena eta aberasgarriena, sortutako materialaren ale editatua eskuratzea. Bestela, dohaintzaren bitartez proiektuari nahi diozun laguntza zuzena eman diezaiokezu web orrialdean horretarako prestatutako dagoen atalean.

Bestetik proiektua beste kulturetara irekitzeko asmoa ere badugu, konpartitzeko garaian materialaren itzulpenak eginez. Gurean sortutako indarra beste tokietara hedatzea gustatuko litzaiguke eta hala beste lekuetako sehaska kulturarekin erlazioa dituzten proiektuak egitera animatu tokian tokiko lanketak bultzatuz eta gurera ekarriz interesa dutenen artean sare handi bat sortuz.